

Sanpedroak SOPELAN

Herriko kale nagusienetan zehar ibiliko dira koadrila guztietako partaideak. Koadrila bakoitzak jaien hasierari ekiteko modu ezberdina du. Baina garbi gera bedi: arratsaldean Sopelara joaten denak primeran pasako du.

Koadrilen ibilbide martxosoa

JON OLASKOAGA

Nork lortuko du ikusleen artean irribarre handienak sortzea? Nork jantziko ditu mozorro onenak? Nork erakutsiko du jai eta alaitasunerako izpiritu handiena? Zaila da esatea, azken batean koadrila guztietako partaideek umore ona, jairako gogoa eta alaitasuna agertzen baitute. Jaiak dira eta Sanpedroak urtean behin baino ez dira. Beraz, festen aurretik dauden buruhauste eta egoneza guztiak alde batera utzi behar dira, jaietz ahalik eta gehien gozatzeko.

Aita Barandiaran plazatik irtingo dira koadrila guztiak Udaletxerainoko bidea betetzeko. Euskaldunak nahiko itxiak garela esan ohi da. Kontu guztiak koadrila barnean gelditzen omen dira. Baina gaurkoan topiko hau alderatu egingo da Sopelan. Koadriletako partaideek primeran pasatzen dute, lagunekin nahi dituzten txorakeria guztiak egin eta nahi dituzten istorio guztiak errepresentatu ditzaketelako.

Baina kale ertzean koadrilen martxa ikusten dagoenak ere primeran pasatzen du. Aspaldidanik ezagutzen diren pertsonen pailazoarena eta astoarena egiten ikustea, ez da eguneroko gauza. Hortaz, espaloian dauden barreak handiak dira. Azken batean ezin da neurtu nork lortzen dituen etekin handienak koadrilen desfilearekin: ikusleak edo koadrilako partaideak. Gauza bat argi dago. Denek primeran pasatzen dute.


Txupinazo zalapartatsua Udaletxeko balkoitik

Aldatz-Gora fanfarreak markatutako doinuekin helduko dira koadrila guztiak Udaletxeko plazara. Orduan iritsiko da jai-



MIKEL

Koadriletako partaideek hainbat egoera sortzen dute desfilea ikusten ari direnei barrea eragiteko.



EGITARAUA

GAUR

- 19.00 Aita Barandiaran Plazatik Udaletxeko Plazara koadrilen martxa Aldatz-Gora fanfarrearekin.
- 19.30 Udaletxeko balkoitik jaien iragarkia. Ondoren txupinazo eta Aldatz-Gora fanfarrearekin ekitaldia.
- 23.00 Gau-festa Basakabi taldearekin.

BIHAR

- 8.00 Bolanderak.
- 9.00 Txistularien kalejira.
- 11.00 Meza nagusia eta ohorezko aureskua.
- 12.00 Eskolarteko pilota partiduak.
- 16.30 Eskolarteko txirrindularitza lasterketa.
- 17.00 Koadrilen jaitziera Gureztat fanfarrearekin.
- 18.00 Zezenak.
- 20.00 Euskal dantzak: Portugaleteko Elai Alai eta Sestaoko Salleko.
- 23.30 Dantzaldia Fabula taldearekin. Zezensuzkoa.

● Azken batean ezin da neurtu nork pasatzen duen ondoen koadrilen desfilean: koadrilako partaideak edo ikusleak.

tako une garrantzitsuenetako, txupinazoaren jaurtiketa alegia. Jaietako, ofizialki bederen, hasiera eman behar zaie eta horretarako erabiltzen dute txupinazo Sopelan. Ez pentsa sopelarrak bereziak direnik, Euskal Herriko udalerrri gehienetan antzekoa egiten baita. Baina bada txupinazo jaurti aurretik festari ekin diona.

Txupinazo udaletxeko balkoitik jaurtiko da. Aurretik jaien iragarkia irakurriko da. Tarte horretan Aldatz-Gora txarangak bere musikarekin giroari utsiko dio. Horren guztiaren ondoren gauerako prestaketak hasiko dira. Kontuan izan Basakabi taldeak gau-festa bikaina egingo duela. Dantzan egin nahi duenak badu musika ederra. Edan nahi duenak baditu tabernak. Beste gauzetarako, hortxe dago hondartza.

**HERRIKO
TABERNA
MIKELATS**

*Agur beroa
herrian ez zaudetenei*

ARANTZA - JOSEBA ta ANIS

Dabi ta Mario Alvarez z/g

SOPELA

ALPIA
LORATEGI
LORAK LANDARAK
Dr. Landa, 2 Tel.: 676 03 09 SOPELA

UMEKERI
EGUNKARI, ALDIZKARI ETA GOZOKIAK

Subigane, 5

Tf.: 676 25 26

SOPELA